

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa batek aurrera eramateko, 4 baliabide garrantzitsu batzuk jarraitu behar dira, hala nola, baliabide fisikoak, intelektualak, giza-baliabideak eta azkenik, finantza-baliabideak.

• **Baliabide fisikoak:**

Hasteko, baliabide fisikoak, baliabide materialak bitarteko fisikoak eta ukigarriak dira, pertsona edo erakunde bati helburu jakin bat lortzeko aukera ematen diotenak. Gure kasuan, oinarritzkoena sare-sozialak izango lirateke, gure aplikazioa interneten bidez doalako. Aplikazio bat denez, iruzkinak egiteko aukera du, igotzen diren argazkietan publikoki iritzia emanez. Gainera, sare-sozialetan publizateta dagoenez, mundutik zabaltzen da, beraz, jende gehiago ezagutzeko aukera izango luke

• **Baliabide intelektualak:**

Bigarren baliabideak, intelektualak dira. Enpresan sortutako aktibo ukiezinak dira, baina ezin dira jabetza intelektual gisa erregistratu. Adibidez, enpresak garatutako informatika-programak. Gure kasuan, sortutako aplikazioa da

• **Giza baliabideak:**

Ondoren, giza baliabideak daude, enpresa baten baliabide garrantzitsuenak direnak. Horiek enplegu bat eskatzen duten pertsonak aurkitu, hautatu, errekrutatu eta gaitzen dituzte, hala nola, ematen zaizkien prestazioak edo onurak administratzen ere. Adibidez, enpresak kontratatuko dituen influencerrak

edo gure aplikazioaren publizitatea eramango duten garraioak. Harek izango dira gure enpresa hautatuko dituen "langileak".

• **Finantza baliabideak:**

Azkenik, finantza-baliabideak dira, nolabaiteko likidezia duten aktiboak dira. Beraz, alderdi ekonomikotik, eskudirvarekin eta haren baliokide likidoekin zerikusia dutenak izango lirateke, hala nola, eskudirua eta kredituak. Guk aurreikusi ditugun langileak 5 izango dira, 3 influencerrak eta 2 garraio publizitatea egiteko. Orduan hilabero ordaindu behar diogunez langile horiei gastu bat suposatuko digu.

